



LH-3. MAILA
3. UNITATE DIDAKTIKOA
"Berdintasuna"



LH3-3UD.BERDINTASUNA: IRIZPIDE ETA JARRAIBIDEAK



Neska-mutilek erabat garatzeko behar diren ikaskuntzen jabe izan behar dute, bizitzaren alor guztietan autonomiaz bizitzeko gauza izan daitezten eta berdintasunean oinarritutako harremanak izan ditzaten. Ideia horren oinarrian Giza Eskubideak daude.

KONTZEPTU NAGUSIAK	BEHAKETA - AZTERKETA	ONDORIOAK - IKASKETA
<p>1. Berdintasunaren oka: neska eta mutilentzat bizitzarako ibilbide komuna. Ikasketa, jarduera eta rol berberak garatzea ahalbideratzen duena. Aukera eta bitarteko berberak, baliabide eta tratu berbera eskaintzen dizkiena neska nahiz mutilei. Bizitzarako arlo guztietarako prestatzen dituen: zaintza, lana-enplegua eta aisiarako.</p>	<p>1. Jarduera eta ikasketak. Ondo identifikatu dituzte emaitzak lortzeko garatu behar diren jarduera eta ikasketak? Zeintzuk bai? Zeintzuk ez? Neskek zein mutilek jarduera berberak aukeratu dituzte emaitza bakoitzerako? Zeintzuk ez? Zergatik? Ondorioaren bat eduki dezake horrek bakoitzaren garapenean eta beraien arteko harremanetan?</p>	<p>→ Berdintasunaren okak berdintasunerako heziketa irudikatzen du. Neskentzat eta mutilentzat bizitza ibilbide justuago eta libreago bermatzen duen heziketa.</p> <p>→ Berdintasunerako heziketa askatasunerako eta aniztasunerako heziketa da. Neskek zein mutilek bizitzaren ibilbidean askatasun, aukera eta tratu bera izan dezaten. Bakoitza norbera izan eta besteekin harreman positiboak eta pozgarriak izan ditzaten.</p>
<p>2. Berdintasunak aniztasuna, askatasuna eta autonomia pertsonala ahalbidetu eta bermatzen du. "Oka berdeak" guztientzat heziketa eta ikasketa bera irudikatzen du. Aukera eta bitarteko berberak. Estatus eta protagonismo berberak. Askatasun eta autonomia berberak.</p>	<p>2. Neska zein mutilentzat eredu berdinzaleak. Neskek eta mutilek portaera berberak aukeratu dituzte pertsonaia bakoitzarentzat? Zeintzuk ez? Zergatik? Beraientzat portaerak aukeratu dituztenean, emakumeen pertsonaia eta gizonen pertsonaia aukeratu dituzte? Ala soilik bere sexuko pertsonaia? Zergatik?</p>	<p>→ Berdintasunerako heziketa Giza Eskubideetarako eta tratu onerako heziketa da. Guztiontzat harreman berdinzaleak, onuragarriak eta zoriontsuagoak ahalbideratzen dituen heziketa.</p>
<p>3. Berdintasunaren "Oka berdeak" generoko dikotomia gaitzen du. Aurreko unitate didaktikoan (2.UD) aztertu ziren "Oka urdin" maskulinoa eta "Oka arrosa" femeninoaren alternatiba da, genero-dikotomiaren alternatiba. Bizitzaren arlo guztietarako, arlo publiko nahiz pribaturako berdintasuna, aniztasuna, askatasuna eta autonomia sustatzen duen alternatiba.</p>	<p>3. Giza eskubideetan oinarritutako harremanak. Giza Eskubideekin bat datozen esaldiak identifikatu dituzte? Zailtasunik egon al da? Zein? Eta Oka Berdea eta harreman berdinzaleak adierazten duten esaldiak? Zeintzuk ez? Zergatik? Neskek zein mutilek berdina ala desberdintasunen bat egon da? Zein? Zergatik? Genero ereduaren eta rolen dikotomia nabaritu da?</p>	<p>→ Berdintasunerako heziketa hiritartasun osorako heziketa da. Emakume eta gizon bakoitza hiritar osoa izan ahal izateko printzipioak, balioak eta bitartekoak garatzen dituen heziketa.</p> <p>→ Berdintasunerako heziketa hezkidetzak da. Neska zein mutilei bizitzaren arlo guztietan pertsona osoak eta autonomoak izatea ahalbideratu nahi dien hezkidetzak.</p>

→ **Berdintasunaren oka berdea aniztasunaren eta askatasunaren oka da, oka urdin maskulinoaren eta oka arrosa femeninoaren alternatiba da.**